

Ilargira!

30-45 minutu / +3 urte

Oraingoan robota mozorrotu egingo dugu. Saioa hasi aurretik mozorroa inprimatu, moztu eta robot gainean jarrita izatea komeni da. Honekin batera, espazioaren tableroa inprimatuko dugu ere.

Ikasleek tableroa moztuko dute. Moztu ondoren, pieza guztiak lurrean itsatsi behar dira. Denak bata bestearen segidan.

Ondoren ikasleek dadoa botako dute eta espazio-ontzia dadoan ateratako kopurua mugitu beharko da. Ilargian amaitzeko, zenbaki justua atera behar da, bestela, robotak errebotatu eta atzera bueltatu beharko da.



Helburuak	Konpetentziak	Materiala
<ul style="list-style-type: none">Espazioaren ezagutzea (Aurrera eta atzera)Zenbakiak (batuketak eta kenketak)Taldean lan egiteaBakoitzaren txandak errespetatzeaGuraize, papera eta zeloa erabiltzea	<p>Dizplinar-tekoak</p> <ul style="list-style-type: none">Matematika OK2Artea OK5 <p>Metadiziplinarrak</p> <ul style="list-style-type: none">Ekimena OK9Elkarlana OK10	<ul style="list-style-type: none">Beebot robotaEspazioaren tableroa6 aldeko dadoaEspazio-ontzi mozorroaZeloaGuraizeak

Aukera gehiago

- Gelan robot bat baino gehiago badugu, ikasleak bi taldeetan banatu ditzakegu. Bi tablero inprimatu eta dadoa txandaka botaz, lasterketa bat antolatu daiteke.
- Robotaren ibilbidea sekuentziatzeko sekuentzia txartelak erabil daitezke.